| 2017KO IRAILAREN 27AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA. | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 27 DE SEPTIEMBRE DE 2017. |
|---|---|
| ============================ | ============================ |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi jn.

| ALKATEORDEAK | TENIENTES DE ALCALDE |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
José Luis Landa Arteche (PSE-EE (PSOE))

| ZINEGOTZIAK | C O N C E J A L E S |
|---|---|

Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Amaia Agirre Muñoa (EAJ/PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)
Iñaki Gamero Delgado (PP)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Miguel Ibabe Botella (PP)
Susana De Cos Yañez (PP)
Paula Amieva Clemente (GUK)
Francisco Enrique Prada Olleta (GUK)
Enrique Olaso García (GUK)
Oier Iturralde Fernández (EH BILDU)
Maite Arraiza Aramendia (EH BILDU)

Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Nerea Guijarrubia García (EH BILDU)
Teresa Escalante Reina (PSE-EE (PSOE))
Santiago Sainz Robles (C'S)

| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako arratsaldeko lauretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las dieciséis horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Susana Andollo andreak osoko bilkurara ezin-etorria zuritu du.

Susana Andollo excusa su asistencia al Pleno.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**157.- 2017KO UZTAILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.**

**157.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 26 DE JULIO DE 2017.**

2017ko uztailaren 26an Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onestea.

Se aprueba por unanimidad el acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 26 de julio de 2017

**LEHENDAKARITZA ETA GIZARTE**

**PRESIDENCIA Y SERVICIOS**

**ZERBITZUAK**

**158.- GETXOKO UDAL TALDE POPULARRAREN BOZERAMAILEA DELA JAKITERA EMATEA.**

Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuen Informazio Batzordeak proposatuta,

Getxoko Udal Talde Popularraren bozeramaile aldaketaren jakitun egon. Hortaz, 2017-10-01etik aurrera, titularra Eduardo Andrade Aurrecoechea jauna izango da, eta ordezkoak, Raquel González Díez-Andino andrea eta Ignacio Gamero Delgado jauna.

**SOCIALES**

**158.- DACIÓN DE CUENTA DEL CAMBIO DE PORTAVOZ DEL GRUPO POLÍTICO MUNICIPAL POPULAR DE GETXO.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Presidencia y Servicios Sociales,

Quedaron enterados del cambio de portavoz del Grupo Político Municipal Popular de Getxo, de forma que el titular será D. Eduardo Andrade Aurrecoechea, y los suplentes Dª Raquel González Díez-Andino y D. Ignacio Gamero Delgado, con efectos al 01-10-2017

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**159.- 3666/2017 ZENBAKIDUN DEKRETUAREN BERRI EMATEA: KREDITUA PRESTATZEAREN BIDEZ EGINDAKO AURREKONTUAREN ALDAKETARI BURUZKOA.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

Kreditua prestatzearen bidez egindako aurrekontu-aldaketaren Dekretu hau jakitun egon:

3666/2017 zenbakidun Dekretua 357.511,00 euroko zenbatekoarekin. 2017/01F kreditua gaitzea. Gizarte zerbitzuen zorroaren garapena eta

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y EUSKERA**

**159.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO 3666/2017 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados del siguiente decreto de modificación presupuestaria mediante habilitación de crédito:

Decreto nº 3666/2017 por un importe de 357.511,00 euros. Habilitación de crédito 2017/01F. Desarrollo de la Cartera de Servicios Sociales y

gizarte zerbitzuen prestazioak.

Prestaciones de los Servicios Sociales.

**160.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA: TRANSFERENTZIAZ BALIATURIK AURREKONTUA ALDARAZI.**

**160.- DACIÓN DE CUENTA DE VARIOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Transferentziaren bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakitun egon:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

2980/2017 zenbakidun Dekretua 145.002,00 euroko zenbatekoarekin. 2017/10 kreditu-transferentzia. Getxo udalerriko parke eta lorategi publikoak mantendu eta kontserbatzeko zerbitzua, 2018-2022 denboraldian (SMU/2017/10).

Decreto nº 2980//2017 por un importe de 145.002,00 euros. Transferencia de credito 2017/10. Servicio de mantenimiento y conservación de los parques y zonas ajardinadas públicas del municipio de Getxo periodo 2018-2022 (SMU/2017/10).

3214/2017 zenbakidun Dekretua 20.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2017/11 kreditu-transferentzia. Getxo udalerriko adineko pertsonak dinamizatzea.

Decreto nº 3214/2017 por un importe de 20.000,00 euros. Transferencia de credito 2017/11. Dinamización de personas mayores del municipio de Getxo.

3254/2017 zenbakidun Dekretua 5.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2017/12 kreditu-transferentzia. Immigrazio Planeko ekintzak.

Decreto nº 3254/2017 por un importe de 5.000,00 euros. Transferencia de credito 2017/12. Acciones Plan de Inmigración.

3641/2017 zenbakidun Dekretua 10.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2017/14 kreditu-transferentzia. Wanted 2017.

Decreto nº 3641/2017 por un importe de 10.000,00 euros. Transferencia de credito 2017/14. Wanted 2017.

3653/2017 zenbakidun Dekretua 12.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2017/13 kreditu-transferentzia. Getxotarren hizkuntza gaitasuna

Decreto nº 3653/2017 por un importe de 12.000,00 euros. Transferencia de credito 2017/13. Actividades para el desarrollo de la competencia lingüística

handitzea helburu duten jarduerak. Diru laguntzen 2017ko deialdia

de los getxotarras. Convocatoria de subvenciones 2017

**HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA**

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE**

**161.- GETXOKO UDALAREN ETA "VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A./EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, E.A." SOZIETATE PUBLIKOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONESTEA, 24-2 "ITURRIBARRI-II" EGIKARITZE UNITATEAN ALOKAIRUAN BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZA SUSTATZEKO.**

**161.- APROBACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y LA SOCIEDAD PÚBLICA "VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A./EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, E.A. (VISESA)", PARA LA PROMOCIÓN DE VIVIENDA DE PROTECCIÓN PÚBLICA EN ALQUILER EN LA UNIDAD DE EJECUCIÓN 24-2 "ITURRIBARRI-II".**

Proposamena irakurri ondoren, Joseba Arregik hori aurkeztu du, hirigintza lagapenen bidez lortu diren udal lurzatietan alokairurako 136 etxebizitza sustatu eta eraikitzea dakarrena. Visesarekin sinatu beharreko hitzarmenaren elementu garrantzitsuenak zehaztu ditu, eta bertan honako hauek jasotzen dira: Getxon nolabaiteko aurrerapenaz erroldatuta egon beharra onuraduna izateko, adjudikazio irizpideak, Eusko Jaurlaritzaren araudiari helduta etxebizitza eskuratzeko baldintza ekonomikoak, eta etxebizitzen gutxieneko alokairu-aldia 25 urtekoa izatea. Getxon 1.891 pertsonak alokairuko etxebizitza eskatzen dutela adierazi du. Eragiketa 18 milioi eurokoa da, eta, lurzatien balioa eta esku-dirua zenbatuta, Udalak 4.800.000 eurotik gora emango du. Beraz, % 26ko partaidetza du eragiketan. Jarduketa hori Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren (Visesa sozietate publikoaren bidez) artean dagoen akordio politikoan datza.

Tras dar lectura a la propuesta interviene Joseba Arregi presentado la misma que supone la promoción y construcción de 136 viviendas en alquiler en parcelas municipales que se han obtenido por cesiones urbanísticas. Detalla los elementos más importantes del convenio a suscribir con Visesa, en el que se recogen los requisitos de estar empadronado en Getxo con una antelación para poder ser beneficiario, criterios de adjudicación, requisitos económicos para acceder por remisión a la normativa del Gobierno Vasco, periodo mínimo de alquiler de las viviendas por 25 años. Manifiesta que en Getxo hay 1.891 personas demandando viviendas en alquiler. La operación asciende a 18 millones de euros y el ayuntamiento aporta, entre el valor de las parcelas y el dinero en metálico, algo más de 4.800.000 euros, lo que supone una participación del 26% en la operación. Esta actuación se basa en el acuerdo político existente entre el ayuntamiento y el Gobierno Vasco, a través de su sociedad pública Visesa.

Teresa Escalantek esan du gobernu taldearen lorpen bat dela, Getxoko pertsona guztientzat onuragarria izango dena eta Etxebizitzari buruzko Legeari moldatzen zaiona. Alokairuko babes publikoko etxebizitzak sustatuko dira. Udalak orubeak laga, eta ekarpen ekonomikoa egingo du, etxebizitzak eraikitzeko eta 25 urtez, gutxienez, alokairurako erabiltzeko. Hitzarmenaren alderdi bakoitzak bere gain hartu dituen konpromisoak zehatz-mehatz errepasatu ditu. Uste du jarduketa oso onuragarria dela herritarrentzat, eta aurrerapauso bat gehiago ere bai PSE-EEk etxebizitzen problematikaren inguruan egiten dituen proposamenetan. Gogora ekarri du 1999tik 2013ra bitartean Getxoko biztanle gazteak % 34 murriztu direla eta horretan eragina izan duela etxebizitzen problematikak. Jarduketa horren bidez, EAJ-PNVren eta PSE-EEren artean sinatutako Etxebizitza Plana gauzatu egiten da.

Teresa Escalante interviene para manifestar que se trata de un logro del equipo de gobierno que beneficia a todas las personas de Getxo y se adecúa a la Ley de Vivienda. Se van a promover viviendas de protección pública en alquiler. El ayuntamiento cede los solares y una aportación económica para que se construyan las viviendas y, al menos, durante 25 años se dediquen al arrendamiento. Repasa con detalle los compromisos asumidos por cada parte del convenio. Estima que es una actuación muy favorable para la ciudadanía y un paso más en las propuestas del PSE-EE en la problemática de vivienda. Recuerda que desde 1999 a 2013 la población joven de Getxo ha descendido un 34% y en ello ha tenido incidencia la problemática de la vivienda. Con esta actuación se materializa el Plan de Vivienda suscrito entre el PNV y el PSE-EE.

Iñaki Gamerok esan du PPk proposamena babestuko duela, aurretik onetsi baitu hitzarmenari jarraikiz Udalak esku-dirutan ordaindu behar duena ordaintzeko kreditu gehigarria. Udalaren ahalegina handia dela aitortu du, eta Getxoko etxebizitzen kudeaketan egon den buxadura ikaragarrirako irtenbidetzat jo du. Udalerrian ia 4.000 etxebizitza eskatzaile daude. Etxebizitzak gauzatzeko, hau da, horiek amaitzeko, 54 hilabeteko epea ezarri da hitzarmenean; gauzak horrela, 2021. urtearen amaierarako edo 2022. urtearen hasierarako egongo dira prest. Uste du jarduketa ezin dela lorpentzat jo, 2009ko Etxebizitza Planean iragarri eta jakitera eman zelako. Amaitzeko, adierazi du etxebizitza horiek

Iñaki Gamero dice que el PP va a apoyar la propuesta después de haber aprobado anteriormente el crédito adicional para el pago que al ayuntamiento le corresponde realizar en metálico en virtud del convenio. Reconoce que el esfuerzo del ayuntamiento es importante y lo valora como la salida al atasco mastodóntico en cuanto a la gestión de vivienda en Getxo. Hay casi 4000 demandantes de viviendas en el municipio. Se establecen en el convenio unos plazos para la ejecución de las viviendas, que suman 54 meses, para su finalización, es decir, para finales del año 2021 o inicios del año 2022. Estima que no puede ser considerado un logro esta actuación porque se anunció y publicitó en el Plan de Vivienda del año 2009.

merkaturatzeko beharrezkoa dela beste talde politiko batzuekin adostea, eta uste du akordioa ona dela, nahiz eta, beti bezala, berandu iritsi.

Finaliza indicando que para poner en el mercado estas viviendas es necesario consensuar con otros grupos políticos y cree que el acuerdo es bueno aunque como siempre llega tarde.

Enrique Pradak esan du GUKek alderdi positiboak ikusten dituela proposamenean, GUKek etxebizitzari buruz agertu dituen arazoei dagokienez, eta gaitzetsi du gobernu taldeak, 2009tik Etxebizitza Plana izan arren, ez duela eragotzi gazteek udalerritik alde egitea eta LUOren kopuru handiak desbideratu dituela Getxo Antzokirako. Hori eskandalu hutsa iruditzen zaie. Getxo azken postuan dago etxebizitzaren arloan, haren kudeaketa txarra dela-eta. Aitortu du akordio hori bat datorrela GUKen funtsezko jarrera batzuekin, adibidez, etxebizitzak alokairu araubidekoak izatea, LUOren xedea etxebizitzak eraikitzeko lurrak erostea izatea eta arlo horretan proaktiboa den udala egotea. Uste du ondo egongo zela akordioan gainerako talde politikoek ere parte hartzea. Pentsatzen du Etxebizitza Plana Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari eta lurralde antolamendurako zehaztapen berriei lotuta egon behar dela. Hitzarmen horren ondorioa honako hau da: Iturribarrin eraikiko dira, uholde-arriskua izateagatik seguruak ez diren eremuetan, eta hori lantaldeen iritziaren eta Ingurumeneko sailburuaren adierazpenen aurka egingo da. Haien ustez, alderdi positiboak negatiboak beste direnez, abstenitu egingo dira.

Enrique Prada indica que GUK ve aspectos positivos en la propuesta en relación a problemas planteados por GUK respecto a la vivienda y critica que el equipo de gobierno, pese a tener un Plan de Vivienda desde el año 2009, no ha impedido la marcha de jóvenes del municipio y han desviado grandes cantidades del PMS al Getxo Antzokia, lo que les parece un escándalo. Getxo está en el vagón de cola en el tema de la vivienda por su mala gestión. Reconoce que este acuerdo coincide con posturas fundamentales de GUK, como son que las viviendas sean en régimen de alquiler, que el destino del PMS sea la adquisición de terrenos para viviendas y que exista un ayuntamiento proactivo en esta materia. Opina que habría sido deseable que en el acuerdo hubieran participado también el resto de los grupos políticos. Cree que el Plan de Vivienda debe ir ligado al Plan General de Ordenación Urbana y las nuevas determinaciones de ordenación del territorio. La conclusión de este convenio es que en Iturribarri se van a edificar en unas zonas inseguras por su inundabilidad y esto se realiza en contra de la opinión de los lantaldes y manifestaciones de la consejera autonómica de Medio Ambiente. Como observan tanto aspectos positivos como negativos se van a abstener.

Nerea Guijarrubiak adierazi du EH Bilduk hainbat alditan eskatu duela alokairuko etxebizitzen parke publikoa sortzea. Haiek sustapenen kudeaketa publikoaren eta zuzenekoaren aldeko

Nerea Guijarrubia indica que EH Bildu ha reclamado repetidas veces la creación de un parque público de vivienda en alquiler. Su apuesta es por la gestión pública y directa de las

apustu egiten dute. Proposamena baloratu egiten dute, baina ez da EH Bilduren helburua, ez baitakar udalaren zuzeneko kudeaketa. Etxebizitza parkea sortuta etxebizitza sozialen aldeko apustu egiten dute. Positibotzat jotzen dute urrats hori, baina oraindik badago hobetzeko tarte handia. Hori dela eta, abstenitu egingo dira.

promociones. La propuesta la valoran pero no es el objetivo de EH Bildu ya que no es una gestión directa del ayuntamiento. Apuestan por las viviendas sociales con la creación de un parque de viviendas. Este paso lo valoran positivamente pero existe mucho margen de mejora, por lo que se abstendrán.

Santiago Sainzek esan du Ciudadanosek gobernu taldearen proposamena babestuko duela, beharrezkotzat eta ezinbestekotzat jotzen baitute, baina ezin dela irtenbide bakarra izan eta Etxebizitza Planean aurreikusitakotik % 12 baino gutxiago eraiki dela. Uste du beste formula batzuk ere frogatu behar direla, adibidez, zenbait programa (Bizigune, kasurako) indartzea, eta laster bidaliko dizkio Ciudadanosen proposamenak Hirigintzako zinegotziari.

Santiago Sainz indica que Ciudadanos va a apoyar la propuesta del equipo de gobierno, que consideran necesaria y vital pero no puede ser la única solución y del Plan de Vivienda únicamente se ha construido una cifra inferior al 12% previsto. Cree que hay que apostar también por nuevas fórmulas como potenciar programas como Bizigune, etc, y las propuestas de Ciudadanos las va a remitir en breve al concejal de Urbanismo.

José Luis Landak aitortu du etxebizitzari buruzko akordioa 2009koa dela eta PSE-Eek hori sinatu zuela, oposizioan zegoen bitartean. Beraz, erantzukizuna agertu zuten. Ez du lorpenez hitz egin nahi, baina lasai sentitzen da, kasu honetan inork ez baitu kontrako botorik emango, ez aurreko beste urteetan bezala, non multzoka kontrako botoa ematen zitzaion gobernu taldearen edozein proposameni.

José Luis Landa reconoce que el acuerdo sobre vivienda es del año 2009 y lo firmó el PSE-EE estando en la oposición, lo que supone un ejercicio de responsabilidad. No habla de logros pero se siente aliviado ya que en este caso nadie va a votar en contra, a diferencia de otros años anteriores en que se votaba en contra en bloque a cualquier propuesta del equipo de gobierno.

Iñaki Gamerok adierazi du PSE-EEk kea onetsi zuela, oposizioan bazegoen ere. Planak etxebizitza gehiago iragartzen zituen, ondoren erdira murriztu zuen kopurua, eta azkenean hori ez da bete. PPk beti babestu ditu etxebizitzen arloko jarduketak, eta gauzatzen ari dena PPren babesei esker ari da gauzatzen; izan ere, aurrekontu kredituak eta plangintzako aldaketak

Iñaki Gamero indica que el PSE-EE aprobó humo aunque estuviera en la oposición. El plan anunciaba más viviendas, que posteriormente se rebajaban a la mitad y no se ha cumplido. El PP siempre ha apoyado las actuaciones en viviendas y lo que se está ejecutando se está realizando gracias a los apoyos del PP que ha garantizado créditos presupuestarios y

bermatu ditu, jarraian aipatu dituenak. Gobernu taldeari eskatu dio etxebizitzen eraikuntza bizkortu dadin.

modificaciones de planeamiento, que pasa a citar. Pide al equipo de gobierno que se agilice la ejecución de las viviendas.

Joseba Arregik esan du EH Bilduren jarrerak harritu egiten duela, Visesa Eusko Jaurlaritzaren erakunde instrumental bat dela kontuan hartuta. Uste du, Etxebizitza Plana egon ez balitz, ez zatekeela egongo proposamen hori, eta, arloko arduraduna den aldetik, PPren babesa gai zehatz batzuetan baino ez du sentitu. Proposatzen dena ez da eragiketa erraza, etxebizitzak alokairukoak izateagatik. Etxebizitza arloko hainbat jarduketa eta Osoko Bilkuraren bileretan proposatuko diren hurrengo proposamenak aipatu ditu, Etxebizitza Plan horretan ezarritakoa beteko dutenak. Halaber, adierazi du zenbait eremutan (adibidez, Zubilleta) ez dela aurrera egiten, eta hori gertatzen da Osoko Bilkuran babes politikoa ez dagoelako.

Joseba Arregi manifiesta que le sorprende la postura de EH Bildu ya que Visesa es un ente instrumental del Gobierno Vasco. Estima que si no hubera existido el Plan de Vivienda no existiría esta propuesta y como responsable del área sólo ha sentido el apoyo del PP en cuestiones puntuales. Lo que se plantea, al ser en arrendamiento las viviendas, no es una operación facil. Da cuenta de diferentes actuaciones en materia de vivienda y de próximas propuestas que se plantearán al Pleno y que alcanzarán a lo previsto en el Plan de Vivienda y en aquellas zonas en las que no se avanza, como es en Zubilleta, se debe a que no hay apoyo político en el Pleno.

Enrique Pradak aitortu du lurraldea erabiltzeko irizpideak lehenetsi dituztela eta beharbada horregatik gobernu taldeak beren proposamenei erantzun zain daudela. Etxebizitza hutsei dagokienez, horri buruzko ekimen baten aurka bozkatu zuten, udalaren nagikeria salatzeko modu gisa. Akordioak 25 urterako alokairua hausnartzen du, eta horrek udalak ekarpena egitea dakar, nahiz eta beste toki batzuetan ez den beharrezkoa izan ekarpen ekonomikoa egitea. Iturribarriko kokapenari dagokionez, uste du ez dela segurua; beste eremu batzuetan (adibidez, Ormaza) lurraldearekiko erlazioa aldatu da, hori hobetuta, eta beste batzuetan (adibidez, Venancios) ez omen zaio jarraitzen irizpide horri. Horrek guztiak anabasa

Enrique Prada reconoce que han priorizado criterios de utilización del territorio y quizá por eso están a la espera de respuesta del equipo de gobierno a sus propuestas. Respecto a las viviendas vacías votaron en contra de una iniciativa al respecto como denuncia de la inactividad del ayuntamiento. El acuerdo contempla un arrendamiento a 25 años y ello supone una aportación del ayuntamiento cuando en otros lugares no ha sido necesario realizar aportación económica. Respecto a la ubicación de Iturribarri cree que no es segura mientras que en otras zonas como Ormaza se ha variado la relación con el territorio, mejorando la misma y en otras propuestas como en Venancios no parece que se siga con ese criterio, lo

sorrarazten du.

que genera confusión.

Nerea Guijarrubiak adierazi du, EH Bilduk proposamen hori babesteko, bermatu beharko litzatekeela etxebizitzak alokairuko araubidean egotea beti. Orain da hitzarmenaren atal hori aldatzeko eta, horrela, Getxoko etxebizitza parke iraunkorrarekiko lotura sortzeko unea.

Nerea Guijarrubia manifiesta que para que EH Bildu apoyara esta propuesta debería garantizarse que las viviendas estén siempre en régimen de arrendamiento y ahora es cuando se está en posibilidad de modificar el convenio en ese apartado y generar así una vinculación con un parque de viviendas permanente en Getxo.

Joseba Arregik uste du 25 urte gutxieneko epea dela eta epe garrantzitsua dela. Beraiek ere udalerriko etxebizitza parke iraunkorra nahi dute, eta, Etxebizitza Planaren bidez, alokairuko 700 etxebizitza eraikiko dira. GUKi galdetu dio non kokatuko lituzketen beraiek etxebizitzak, udalerriko zein espazio fisikotan, Getxoko bizilagunei erantzun ahal izateko.

Joseba Arregi estima que 25 años es el plazo mínimo y cree que es un plazo importante. También desean un parque permantente de viviendas en el municipio y con el Plan de Vivienda se realizarán 700 viviendas de alquiler. Pregunta a GUK que le indique dónde ubicarían las viviendas, en qué espacios físicos del término municipal, para poder dar respuesta a los vecinos de Getxo.

Enrique Pradak erantzun du mahai gainean proposamen zehatz batzuk dituztela, EAJ-PNVk hainbat hamarkadatan aintzat hartu ez dituenak artatzeko, eta horietan lan egitea espero dutela. Etxebizitza sozialen parke iraunkorra defendatu du. Etxebizitzen arazoa ez dagokio GUKi, baina hori konpontzen laguntzeko prest daude.

Enrique Prada responde que tienen unas propuestas concretas sobre la mesa para atender a los que han sido desatendidos por el PNV en décadas y esperan trabajar las mismas. Defiende un parque de viviendas social permanente. El problema de vivienda no es responsabilidad de GUK pero están dispuestos a colaborar en su solución.

Proposamena bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: aldeko 17 boto (EAJ-PNV, PP, PSE-EE eta Ciudadanos) eta 7 abstentzio (GUK eta EH Bildu).

Sometida la propuesta a votación, obtiene el siguiente resultado: 17 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 7 abstenciones; GUK, EH Bildu;

Ondorioz, Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen eta Ondare eta Etxebizitzako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, Medio Ambiente y Patrimonio y Vivienda, por mayoría se acordó:

LEHENENGOA.- Interes berezikotzat

PRIMERO.- Declarar de especial interés

edo herri erabilerakotzat jotzea sustapen horretako eraikuntza, instalazio eta obrak, hura justifikatzen duten inguruabar sozialak gertatzen direlako, eta % 95eko hobari-portzentajea finkatzea zergei, instalazioei eta obrei buruzko zergaren kuotan.

o utilidad municipal las construcciones, instalaciones y obras de dicha promoción, por concurrir circunstancias sociales que lo justifican, y fijar un porcentaje de bonificación del 95% en la cuota del impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras.

BIGARRENA.- 1.872.000 euroko gastua onestea eta xedatzea, "VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A."ren alde (VISESA), A-20306775 IFK, aurrekontuko 004/1520/7140000 partidaren kontura.

SEGUNDO.- Aprobar y disponer el gasto por importe de 1.872.000 €, a favor de "VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A." (VISESA), con CIF A-20306775, con cargo a la partida presupuestaria 004/1520/7140000.

HIRUGARRENA.- Getxoko Udalaren eta "Vivienda y Suelo de Euskadi S.A." (VISESA) sozietate publikoaren artean sinatu beharreko lankidetza hitzarmena onestea, 24.2 "Iturribarri-II" egikaritze-unitatean babes publikoko etxebizitza, alokairuan, sustatzeko, I. eranskinean ezarritako terminoetan.

TERCERO.- Aprobar el Convenio de Colaboración a suscribir entre el Ayuntamiento de Getxo y la sociedad pública "Vivienda y Suelo de Euskadi S.A." (VISESA) para la promoción de vivienda de protección pública en alquiler en la unidad de ejecución 24.2 "Iturribarri-II", en los términos expresados en el Anexo I.

LAUGARRENA.- Alkatetza-Udalburutzari ahalmena emango zaio erabaki hau betetzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

CUARTO.- Facultar a la Alcaldía-Presidencia para dictar cuantas disposiciones sean precisas en orden a la ejecución del presente acuerdo.

BOSGARRENA.- Ebazpen hau VISESAri jakinaraztea, ondorio egokietarako.

QUINTO.- Notificar a los efectos oportunos la presente resolución a VISESA.

SEIGARRENA.- Udaleko Kontu Hartzailetzari ebazpen hau jakinaraziko zaio.

SEXTO.- Dar traslado de la presente resolución a Intervención Municipal.

ZAZPIGARRENA.- Udalaren lurzoru-ondarearen ustiapen erregistroan adieraztea onetsi den lankidetza hitzarmenean dauden udal ondareen aldaketak.

SÉPTIMO.- Reflejar en el Registro de Explotación del Patrimonio Municipal del Suelo las variaciones en los bienes municipales incluidos en el Convenio de Colaboración que se aprueba.

**MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK**

**MOCIONES E INTERPELACIONES**

**162.- PNV-EAJ ETA GUK UDAL TALDEEK ELKARREKIN BATEAN AURKEZTUTAKO MOZIOA: KATALUNIAREN EGOERA.**

Koldo Iturbek mozioa irakurri du euskaraz, eta Paula Amievak, aldiz, gaztelaniaz.

Ibon Rodríguezek transakzio zuzenketa bat aurkeztu du. Honako hau da:

*"Zioa*
*Aurkeztutako moziak une konkretu bati erantzuten dio eta zoritxarrez azken egun hauetan Kataluniako prozesu demokratikoaren kontrako errepresioa eta jarrera totalitarioak areagotu egin dira. Hori del aeta mozioa bera osatu behar dela uste dugu eta zentzu horretan honako ekarpen gehigarrika egin nahi ditugu.*

*Gehitzeko puntuak:*

*5-. Modu demokratikoan aukeratuak izan diren Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu. Demokrazioa practican jartzea ahalbidetu nahi duten alkateak inputatzea deitoratzen dugu.*

*6-. Getxoko Udalak babes osoa eskaintzen dio Parlament de Catalunya-k urriaren 1ean erreferenduma egiteko hartu duen erabakiari, zein gizartearen gehiengo zabal batek sustatu eta babesten duen. Halaber eskatzen du Catalunyako gizarteak demokratikoko erabakitzen duena errespetatzeko.*

*7- Getxoko Udalak balorean jarri nahi du errepresio egun hauetan Catalunyako gizarteak erakutsi duen erantzun baketsua, biolentziari eta errepresioari jokabide baketsuak aurpegiratu diete. Baketsuak eta demokratikoak izan dira Catalunyako erakundeek eta herritarrek eginiko urrats guztiak eta horien aurrean estatuak*

**162.- MOCIÓN CONJUNTA DEL GRUPO MUNICIPAL PNV Y GUK S/LA SITUACIÓN DE CATALUNYA.**

Koldo Iturbe da lectura a la moción en euskera y Paula Amieva en castellano.

Ibon Rodríguez presenta una enmienda trasaccional, a la que da lectura:

*"Motivación:*
*La moción presentada responde a un momento concreto. Por desgracia, a lo largo de los últimos días, la represión y las actitudes totalitarias en contra del proceso democrático de Cataluña están yendo a más. Por ese motivo, pensamos que debemos completar la moción y, en ese sentido, realizar la siguiente aportación:*

*Puntos a añadir:*

*5-. Denunciamos firmemente las citaciones para declarar dirigidas a alcaldes catalanes, elegidos de manera democrática. Denunciamos la imputación de alcaldes que pretenden materializar la democracia.*

*6-. El Ayuntamiento de Getxo ofrece su total respaldo al acuerdo adoptado por el Parlamento de Cataluña para llevar a cabo un referéndum el 1 de octubre, impulsado y respaldado por una amplia mayoría social. De igual modo, solicitamos que sea respetado lo que la sociedad de Cataluña decida de manera democrática.*

*7.- El Ayuntamiento de Getxo desea poner en valor la respuesta pacífica dada por la sociedad catalana ante la represión; ante la violencia y la represión han respondido con actitudes pacíficas. Y pacíficos y democráticos han sido todos los pasos dados por la ciudadanía y las instituciones catalanas; ante esto, el estado no ha ofrecido*

*inposizioa, zigorra eta indarra besterik ez du erakutsi."*

Koldo Iturbek esan du GUKek eta EAJ-PNVk aurkeztu dutena Eusko Legebiltzarrean EAJ-PNVk, Elkarrekin-Podemosek eta EH Bilduk onetsitako testua dela eta, koherentziari jarraikiz, ez dutela zuzenketa onartuko.

Raquel Gonzálezek adierazi du kezkatuta dagoela gai horretan EAJ-PNV erradikaltasuneratz hurbiltzen ari delako, gizartea legezkotasunik ezera bultzatuta eta euskal gizarteak eskatzen duen horretatik aldenduta. Mezu populista da, eta espainiar guztien eskubidea urratzea ezkutatzen du, erakundeetako kargudunak izateaz baliatzen ari diren gutxi batzuen erruagatik. Kontua ez da bozkatzen uztea, legeak urratzen eta bizikidetza hausten uztea baizik. Eldarniozkoa eta larria iruditzen zaio EAJ-PNVk, Euskal Autonomia Erkidegoa zuzentzen duenak, hori babestea. Gogora ekarri du hemen iragana ez zela hobea izan, eta EAJ-PNVri eskatu dio berriro ere zuzenbidezko estatua eta demokraziaren arauak errespeta ditzan. Amaitzeko, esan du, puntu horretan hitz egin ondoren, amaitutzat jotzen duela gai berari buruzko hurrengo aztergai bateko hitzaldia.

Teresa Escalantek adierazi du ezin dela bizikidetza defendatu nortasunak aurrez aurre ipiniz eta, era berean, demokrazia ezin dela defendatu legeak errespetatu gabe. Espainiako eta Kataluniako Gobernuak ez dira gai izan dagoen gatazka bide politikotik konpontzeko. Espainiako Gobernuaren jarduna haztegia izan da independentistentzat. Espainiako Gobernuak legea zorrotz aplikatzea baino ez du proposatu, eta, Espainiako

*más que imposición, castigos y violencia."*

Koldo Iturbe manifiesta que lo que han presentado GUK y el PNV es el texto aprobado en el Parlamento Vasco por PNV, Elkarrekin-Podemos y EH Bildu y por coherencia no van a admitir la enmienda.

Raquel González interviene para manifestar la preocupación que le produce que el PNV está girando por este tema hacia la radicalidad, arengando a la sociedad a la ilegalidad y alejándose de lo que pide la sociedad vasca. Es un mensaje populista y oculta la violación del derecho de todos los españoles por unos pocos que se están valiendo de su posición de cargos institucionales. No se trata de dejar votar sino dejar que se salten las leyes y revienten la convivencia. Le parece delirante y aún más grave que eso lo apoye el PNV que gobierna en el País Vasco. Recuerda que aquí los tiempos pasados no fueron mejores y pide al PNV que vuelva al respeto del estado de derecho y de las reglas de la democracia. Finaliza indicando que con la intervención en este punto da por cerrada la intervención en un punto posterior sobre la misma cuestión.

Teresa Escalante interviene indicando que no se puede defender la convivencia enfrentando identidades, ni la democaracia se puede defender sin respetar las leyes. El gobierno central y el catalán han sido incapaces de resolver por vías políticas el conflicto existente. La actuación del gobierno central ha supuesto un caldo de cultivo para los independentistas. El gobierno central solo plantea una aplicación rígida de la ley y ante el inmovilismo

Gobernuak immobilismoa agertzen duela eta Kataluniako Gobernua noraezean dabilela ikusita, elkarrizketa eta esparru federala dira irtenbideak. Ez dute babestuko alde bakarreko inolako independentzia erreferendumik, bermeei dagokienez hainbat gabezia duenik; jarraian, horiek aipatu ditu.

del gobierno español y la deriva del gobierno catalán solo cabe el diálogo y el marco federal. No van a apoyar ningún referendum de independencia unilateral con una serie de carencias en cuanto a garantías, que pasa a detallar.

Santiago Sainzek esan du Ciudadanosek dagoeneko iritzia eman duela Kataluniako Parlamentuan, bertan eman behar baita. Haren jarrera ezezkoa da, eta mozio horrek Katalunian haustura ekarri duten politikak babesteko baino ez du balio. Getxoko gobernuko alderdia den aldetik, EAJ-PNVri adierazi dio bere ahaleginak erabil ditzala biztanleen benetako arazoak konpontzeko, hala nola parkeak, zirkulazioak, aparkalekuak eta abar. Kataluniako prozesua alde bakarreko independentzia adierazpena baino ez baitu proposatzen. Konstituzio Auzitegiak Kataluniako Parlamentuaren legeak indargabetu ditu, Parlamentuak ez daukalako horiek emateko eskumena eta, gainera, bere funtzionamendu araudiak berak bete ez dituelako, Parlamentuko organoen eta legelarien irizpide juridikoari entzungor eginda. Halaber, ez da errespetatu Kataluniako oposizioak, gizarte gehiena ordezkatzen duenak, duen eskubidea; izan ere, Kataluniako Parlamentua itxi zen urriaren 1a igaro arte, horretaz eztabaidatzea eragozteko. Botere judiziala ustez delitu egin duten pertsonen aurrean jarduten ari da. Horrenbestez, antolamendu juridikoa betetzen ari da. Europako organoek ez dituzte babesten Kataluniako Parlamentuaren jarrerak. EAJ-PNVri eta GUKi eskatu die mozioa kentzeko.

Santiago Sainz indica que Ciudadanos ya se ha pronunciado en el Parlamento de Cataluña, que es el lugar donde corresponde. Su postura es no y esta moción solo sirve para avalar las políticas que han generado una ruptura en Cataluña. Al PNV, como partido del gobierno en Getxo, le indica que destine sus esfuerzos a problemas reales de la vecindad, como pueden ser los parques, tráfico, aparcamientos, etc., el proceso catalán únicamente plantea una declaración unilateral de independencia. Las leyes del Parlamento catalán se han suspendido por el Tribunal Constitucional porque el Parlamento no tiene competencia para dictar las mismas y además se ha saltado incluso sus propias normativas de funcionamiento y ha desoído el criterio jurídico de sus propios órganos y letrados del Parlamento. Tampoco se ha respetado el derecho de la oposición en Cataluña que representa a la mayoría de la sociedad, llegando a cerrar el Parlamento de Cataluña hasta después del día 1 de octubre para evitar que se pueda discutir. El poder judicial está actuando ante personas que presuntamente han delinquido, por lo que se está ajustando al ordenamiento jurídico. Los órganos europeos no avalan las posturas del Parlamento de Cataluña. Pide al PNV y a GUK que retiren la moción.

Koldo Iturbek gogorarazi du, legezkotasuna aipatzen denean, gogora ekarri behar dela Kataluniako Estatutuaren aldaketarekin gertatu zena: Kataluniako Parlamentuak eta Espainiakoak onetsi zuten, eta gero biztanle gehienek berretsi zuten, nahiz eta ondoren baliogabetu zen, PPk eskatuta. Era berean, gogora ekarri ditu Espainiako Gobernuak Kataluniarekin zerga itunaz eta antzeko gaiez hitz egiteko agertu dituen uko guztiak. Amaitzeko, adierazi du, PPk legezkotasunaren alde hain jarrera argia hartzen badu, Gernikako Autonomia Estatutuaren legea bete beharko lukeela, indarreko legea baita, eta, beraz, eskualdatu gabe dauden eskumenak eskualdatu beharko lituzkeela. PPn jarrera aldaketa ikusi arte, Kataluniako herria eta kontsulta babestuko dituzte.

Koldo Iturbe recuerda que cuando se argumenta le legalidad hay que recordar qué pasó con la modificación del Estatuto de Cataluña que fue aprobado por el Parlamento catalán, por el Parlamento español y ratificado por la gran mayoría de la población y luego se anuló a instancias del PP. Recuerda también todas las negativas que han existido por parte del gobierno central a hablar con Cataluña del pacto fiscal y cuestiones similares. Finaliza indicando que si el PP tanto se posiciona respecto a la legalidad debiera de cumplir la ley del Estatuto de Autonomía de Gernika, que es una ley vigente y transferir, por tanto, las competencias pendientes. En tanto no vea un cambio de postura en el PP van a apoyar al pueblo catalán y a la consulta.

Ibon Rodríguezek esan du zuzenketa aurkeztu dutela, Eusko Legebiltzarrean aurkeztutakoa onetsi zenetik gauza asko gertatu direlako. 1978ko erregimena erori da, eta Katalunian egoera totalitarioak agertzen ari dira. Adierazi du Kataluniarantz abiatu diren segurtasun indarrak xaxatzeko estatuko beste toki batzuetan entzun den "a por ellos" oihua gero Euskadin gerta daitekeen egoera batera heda daitekeela. Ciudadanosi adierazi dio ez dela alde bakarreko independentzia adierazpena, bozkatzeko eskubidearen defentsa baizik, eta eskubide hori babesten dutenak gehienak direla Kataluniako Parlamentuan eta gizartean. PPk ez du legezkotasuna betetzen, Espainiako Konstituzioaren 155. artikulua de facto aplikatzen baitu, horren adibideak emanda, eta autonomiako administrazioan egindako esku-hartzeak zehaztu ditu,

Ibon Rodríguez manifiesta que la enmienda que han presentado se debe a que desde que se aprobó la presentada en el Parlamento Vasco han pasado muchas cosas. El régimen de 1978 ha caído y en Cataluña se están produciendo situaciones totalitarias. Indica que los gritos que se ha oído de "a por ellos" en otros lugares del estado, jaleando a las fuerzas de seguridad que parten hacia Cataluña es una situación que luego puede llegar a Euskadi. A Ciudadanos le indica que no es tanto una declaración unilateral de independiencia sino en defensa del derecho a votar y los que apoyan ese derecho son mayoría en el Parlamento y en la sociedad catalana. El PP incumple la legalidad ya que de facto aplica el art. 155 de la Constitución española poniendo ejemplos de ello, detallando las intervenciones en la administración autonómica, posición

Konstituzio Zuzenbideko zenbait katedradun ospetsuk jarrera hori salatu dutela. Legezkotasuna kontratazio publikoan, fiskalitatean, probak ez desagerraraztean eta abarretan ere bete behar da, PPk sistematikoki bete ez duela eremu horietan. Poliziaren kuarteletan "a por ellos" oihua nagusi zuten agur ekitaldiak egin dira, eta horrek bai apurtzen duela bizikidetza, arazo politikoak ez konpontzearren legearen atzean ezkutatzeak apurtzen duen bezala. PSE-EEri ahaztu zaizkio Espainiako Gobernuan emandako urteak, eta naziotasun anitzaz eta diruaz hitz egiten du. Horrek esan nahi du ez direla konturatu problematikaren errealitateaz.

Paula Amievak adierazi du PSE-EEren falta sumatu dutela mozio horretan; Eusko Legebiltzarrean saiatu egin zen. Hala ere, gustatuko litzaioke beren jarrera argitzea. EH Bilduri esan dio egoera egunero aldatzen dela eta, horren ondorioz, mozioak ezin direla eguneratuta egon. Garrantzitsuena erabakitzeko eskubidea da, eta ez erreferenduma. Gauza bera adierazi die PPri eta Ciudadanosi: kontua da herritarrek parte hartu eta erabaki ahal izatea, eta ez independentziari baiezkoa ala ezezkoa ematea; bozkatu ahal izatea baino ez. Eskandalagarria iruditzen zaie gai horri buruzko hitzaldiak debekatzea, Kataluniatik kanpo egin arren, baita edozein elkarrizketa mota ukatzea ere. Bizikidetzaz eta antzekoez hitz egiteko, PPk ustelkeria alde batera utzi beharko luke. Uste du eseri eta hitz egin behar dela. Inor ez da irabazlea izango egoera horretan, eta PP aldarrikapen baketsuko jarduera batean oldarka sartzen ari da, baina beste modu batean konponduko litzateke: eredu berriak bilatzea, politika feminizatzea, irtenbideak bilatzea, eta

que está denunciada por reconocidos catedráticos de derecho constitucional. La legalidad también hay que cumplir en el ámbito de la contratación pública, de la fiscalidad, de no romper pruebas, etc., ámbitos en los que el PP ha incumplido sistemáticamente. En los cuarteles de la policía se han realizado despedidas con gritos de "a por ellos", etc., y eso sí rompe la convivencia, como también rompe la convivencia ocultarse tras la ley para no resolver problemas políticos. Al PSE-EE se le olvidan sus años en el gobierno central y hablan de plurinacionalidad y de dinero, lo que significa que no se han enterado de la realidad de la problemática.

